

# 5/26

## *irizpena*

Nekazari Gazteen Estatutua arautzen duen eta Nekazari Gazteen Estatutuari buruzko otsailaren 4ko 8/2014 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2026eko ekainaren 24a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## Irizpena 5/26

---



## I.- AURREKARIAK

---

2026ko ekainaren 3an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“Nekazari Gazteen Estatutua arautzen duen eta Nekazari Gazteen Estatutuari buruzko otsailaren 4ko 8/2014 Dekretua indargabetzen duen Dekretu Proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, nekazari gazteen estatutua arautzea, eta gazteak nekazaritzaustiategi profesionaletan titular gisa sartzera eta jarraitzera bultzatzeko jarduketak biltzen ditu.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2026ko ekainaren 18an bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran berresteko, eta han aho batez onartzen da.

## II.- EDUKIA

---

*“Nekazari Gazteen Estatutua arautzen duen eta Nekazari Gazteen Estatutuari buruzko otsailaren 4ko 8/2014 Dekretua indargabetzen duen Dekretu Proiektua”* honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, 21 artikulua 7 kapitulutan antolatuta, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

### Azalpen-zatia

Zioen azalpenak dioenez, oraingo egoerak agerian uzten du berehala hartu behar direla EAEko nekazaritzan belaunaldi-aldaketaren aldeko neurriak.

EAEko nekazaritzan gertatzen ari den zahartze kezkarriak honela laburbil daiteke:

EAEEn, nekazaritzan, soldatapeko langile gutxi dago; ustiategi gehienak mikroenpresak dira, eta titularrak baino ez dituzte enplegatzen.

Sektoreko produkzio-baliabide nagusia lurra da, eta nekazaritza-lurrak apenas duen mugikortasunik. Gainera, bizitegi-, industria- eta azpiegitura-erabilerek presio handia egiten diote, eta, horren ondorioz, merkatura ateratzen den lur apurra neurritz kanpo garestitzen da. Kontrara, gero eta lur gehiago behar dira produktibitatea errentagarria izan dadin, baina gero eta ohikoagoa da jaraunspenetan ustiategiak zatitzea.

Nekazaritzako azpisektore gehienetan sartzeko, inbertsio handiak egin behar dira.

Nekazaritzako lan-baldintzak, batez ere abeltzaintzaren arlokoak, askoz gogorragoak dira beste lan-jarduera batzuetakoak baino.

Alderdi horien guztien ondorio gisa, nekazaritza da, ziur asko, gure herrialdean gazteen enplegua erakartzeko zailtasun gehien duen ekoizpen-sektorea. Beste sektore batzuetan ez bezala, hemen, kontua da ez dagoela sartzeko borondaterik. Aldi berean, gazte batzuek sektorean kokatu nahiko lukete, baina ez dute pizgarri handirik aurkitzen.

17/2008 Legeak (17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa) irmo eta erabakitasunez babesten ditu nekazari gazteak, VI. tituluan; gazteei lehentasuna eman nahi zaie

laguntza eta bultzada emateko orduan, zailtasun bereziak baitituzte nekazaritzan sartzeko eta jarduteko.

73. artikuluan nekazari gazteen estatutu bat arauz egiteko agindua ezartzen zuen, legean jasotako jarduketa horiek babestu eta garatzeko. Agindu horri jarraituz, 8/2014 Dekretua egin eta onetsi zen (8/2014 Dekretua, otsailaren 4koa, Nekazari Gazteen Estatutuarena).

Legegintzaldi honetan "Euskal nekazaritza-sektorean belaunaldien arteko erreleboa egiteko estrategia integrala" prestatu da. Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluari aurkeztu zitzaion 2025eko apirilaren 4an, eta urte bereko ekainaren 17an egindako Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapeneko Politikako Batzordean onartu zen.

Bi helburu jarri dira estrategian: batetik, datozen hamar urtean sektorean 1.250 gazte sartzea eta, bestetik, erreleboa behar duten ustiategiaren % 85ek behintzat jarraituko dutela ziurtatzea.

Bere jarduketean artean, 8/2014 Dekretua dekretu berri batekin ordeztetokoa dago, belaunaldi-erreleborako estrategian jasotako neurri batzuk txertatzeko, eta, hala badagokio, lehendik ere dekretu horretan agertzen zirenak eguneratzeko edo zehazteko.

Asmo horrekin artikulatu da dokumentu hau, eta berau indarrean jartzearekin batera indargabetuko da 8/2014 Dekretua, otsailaren 4koa, Nekazari Gazteen Estatutuarena.

### **Xedapen-zatia**

#### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

1. art. Xedea.
2. art. Definizioak.
3. art. Aplikazio-eremua.

#### **II. KAPITULUA. NEKAZARITZAKO LURRAK LORTZEA**

4. art. Nekazaritzako lurra lortzea
5. art. Erreleborik ez duten ustiategiak eskualdatzea

#### **III. KAPITULUA. LAGUNTZAK ETA FINANTZAKETA ESKURATZEA**

6. art. Gazteak lehen aldiz instalatzea nekazaritzan.
7. art. Inbertitzeko eta lehen aldiz instalatzeko laguntzak.
8. art. Azpisektoreetako plan eta programak.
9. art. Finantza-tresnak.
10. art. Laguntza fiskalak.

#### **IV. KAPITULUA. BESTE SUSTAPEN-NEURRI BATZUK**

- 11 art. Kanpaina instituzionalak.
- 12 art. Gazteak sektorerara etortzea
- 13 art. Elkartzeak egituratzeko laguntza.
- 14 art. Parte-hartze sozial eta politikoa.
- 15 art. Nekazaritza-ekintzaitzarako sari instituzionalak.

#### **V. KAPITULUA. PRESTATZEA ETA SEKTOREAN SARTZEA**

- 16 art. Nekazaritzako prestakuntza eta gaikuntza

#### VI. KAPITULUA. BIZI-KALITATEA

17 art. Ordezkapen-zerbitzuak.

18 art. Landa-inguruneko ekipamenduak eta zerbitzuak.

#### VII. KAPITULUA. ESTATUTUAREN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA

19 art. Sorrera eta osaera.

20 art. Funtzioak.

21 art. Funtzionamendua.

Xedapen gehigarri bakarra.- Sustapen-neurriak garatzea

Xedapen indargabetzailea.– Indargabetzea.

Azken xedapena.- Indarrean jartzea. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

Euskal Nekazaritza-Sektorean Belaunaldien Arteko Erreleboa egiteko Estrategia Integralak jasotzen duen bezala (Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapeneko Politikako Batzordearen 2025eko ekainaren 17ko bileran onartu zena), nekazaritza-sektorean belaunaldien arteko ordezkapena lehenetsuzko arazoa da, bai Europan, bai estatuan eta eskualdeetan. Europako Batzordeak erronka horretan sakontzeko eskatu die estatu kideei, nekazaritzako elikagaien sektorearen jasangarritasunean, landa-garapenean eta lurralde-orekan duen eragin kritikoa kontuan hartuta.

Irizpen honen II. puntuan jaso dugunez, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak bere 73. artikuluan arauz nekazari gazteen estatutu bat egiteko agindua ezartzen zuen, legean jasotako jarduerak babestu eta garatzeko. Agindu hori betez Nekazari Gazteen Estatutuari buruzko otsailaren 4ko 8/2014 Dekretua egin eta onartu zen, eta Batzorde honek horri buruzko irizpena eman zuen (4/13 irizpena).

Orain Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduari dagokion irizpena egiteko eskatzen zaigu; agindu horren bidez *“Nekazari gazteen Estatutuari buruzko Dekretu proiektuaren testua alde aurretik onartzen da eta nekazari gazteen Estatutuari buruzko otsailaren 4ko 8/2014 Dekretua indargabetzen da”*. Agindu horren xedea **“sektorearen ordezgarritasun egokiaren alde** egitea, nekazaritza-munduan sartzen diren gazteen eta bertan jarraitzen dutenen aldeko neurrien eraginkortasuna hobetzea eta gaur egun sortzen diren **beharrei erantzutea”** da (Aginduaren lehen orrialdeko hirugarren paragrafoa).

Gure ustez ezarritako neurrien eraginkortasuna hobetu ahal izateko funtsezkoa da neurrien eragina zein izan den jakitea, eta Euskal Nekazaritza-Sektorean Belaunaldien Arteko Erreleboa egiteko Estrategia Integrala aztertu ondoren, honako hau ikusten dugu:

- nekazaritza-sektorearen diagnostikoa jasotzen du (Estrategiaren 3. puntua), baina ez zehazki 8/2014 Dekretuan jasotako neurrien eraginari buruzkoa;
- bi helburu ezartzen ditu: alde batetik, datozen 10 urteetan 1.250 gazte sektorean sartzea, eta, bestetik, txanda-beharra duten ustategien % 85ek gutxienez jarraipena lortzea;
- bere lan-arloen artean, 5.1.1 puntuan, "8/214 Dekretuaren aldaketa" jasotzen du, honako hau aipatuz: *"Nekazari Gazteen Estatutuaren Jarraipen Batzordeak (EPJA) 8/2014 Dekretuaren*

*aurretiazko berrikuspena egin du, eta bertan hainbat aldaketa eta eguneratze sartu dira. Eguneratze osoa egiteke dago, estrategian jasotzen diren jarduketak gehigarriak sartzeko, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapeneko Politikako Batzordeak onartu ondoren”, eta*

- 1. Eranskinean 8/14 Dekretuan adostutako aldaketen zerrenda jasotzen da.

Azaldutakoa kontuan hartuta zenbait galdera sortzen zaizkigu: zer hobetu nahi da? zer arazo zehatz antzeman ditu 8/2014 Dekretuaren ebaluazioak kontuan hartu ziren neurriak garatzean? zer alderdi zehatz adierazten ditu ebaluazioak eta zehaztasunak? Hau da, ez dakigu dekretu berri honen zergatia.

Ulertzen dugu, ziurrenik, teknika juridikoagatik, komenigarria dela dekretu berri bat egitea eta aurrekoa indargabetzea; **faltan botatzen dugu bilatzen diren hobekuntza-alderdien justifikazioa eta zehaztapena, baita aipatzen diren neurriena ere, eta, beraz, sartzea iradokitzen dugu.**

**Dekretu-proiektuaren eduki substantiboari dagokionez, gogoeta hauek egin nahi ditugu:**

#### **Nekazaritza-lurra eskuratzeari dagokionez**

Gogorarazten dugu nekazari gazteei laguntza irmoa eta sendoa emateko neurrien artean, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legean aurreikusitako artean, "Herri-lurren eta mendi publikoen aprobetxamendua baliatu" dagoela. Gai hori ez da jasotzen dekretu-proiektuan, eta, aldiz, jasota zegoen 8/2014 Dekretuan ( 6. artikulua).

Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu II. kapituluan. Nekazaritza-lurra eskuratzea, mendi publiko eta herri-lurrei buruzko atal hau lehengoratzeari (8/2014 Dekretua, 6. artikulua) eta, atal hori berreskuratzeaz gain, garrantzitsutzat jotzen dugun puntu bat gehitzea, hau da, "mendi publiko eta herri-lur bakoitzean erreserba bat sortzea, GAZTENEK proiektua onartu zaien, onartu eta hurrengo bost urteetan, gazteen artean soilik banatu beharreko hektarea-erreserba gisa ezarritako ehuneko batekin".

Hektarea-erreserba hau modu osagarrian banatuko zaie mendi publiko eta herri-lur bakoitzaren ohiko prozeduraren arabera esleitutako hektareei, instalatu berri diren gazteei ematen zaien laguntza ekonomiko gisa, instalazio-prozesu hori indartzeko, errentagarritasuna ahuldu egiten baita jardueraren lehen urteetan.

Dekretu bidezko erreserba-mekanismoa txertatzeak aukera ematen dio Mendi Publikoen edo Herri Basoen Agintaritza Kudeatzaileari gune horien erabiltzaileak araudi bidez sartzeari komeni den planteatzeko.

#### **Laguntzei dagokienez**

- **Laguntzen ikuspegia**

Dekretu honen helburua (1. artikulua) "nekazari gazteen estatutua arautzea da; estatutuak nekazaritza-ustategi profesionalen titular gisa gazteak hasi eta horretan jarraitzea sustatzearen aldeko ekintzak biltzen ditu".

Azalpen-zatian aipatzen denez, EAeko nekazaritza-sektoreak pairatzen duen zahartze-egoera kezkarria, beste ekoizpen-sektore batzuekin alderatuta, hainbat alderditan laburbil daiteke, eta, lehenik eta behin, honako hau aipatzen da: "euskal nekazaritza-sektorean soldatapeko lanesku oso

gutxi dago; ustiategi gehienak mikroenpresak dira, euren jabeak baino ez dituztenak enplegatzen”.

Artikuluak irakurrita ulertzen da dekretuaren ardatza titulartasuna bultzatzea dela, eta berariaz ekintzaitza autonomoan eta elkarte-formuletan oinarritzen dela (nekazaritza-ustiategi asoziatibo-kooperatiboak), 8/2014 Dekretuak egiten zuen bezala beste aukera batzuk kontuan hartu gabe (1.1. langileen kontratazioa).

Batzorde honen iritziz, estatutu batek beste aukera batzuk jaso eta aurreikusi beharko lituzke, eta, zehatzago esanda, besteren konturako nekazari gazteen aukera. Bestela esanda, testua osatu egin beharko litzateke nekazaritza-ustiategien titular izango ez diren nekazari gazteen errealitateari erreparatuta, edo, bestela, dekretuaren izena zuzendu beharko litzateke, deskribatzen den helburura egokitu eta mugatu dadin.

Dekretuak ez luke alde batera utzi behar nekazaritza-sektorean lan egitea erabakitzen duten, baina, zirkunstantziengatik, ustiategien titular ez izatea erabakitzen duten gazteen egoera. Hori dela eta dekretua hobetzeko eta osatzeko ahalegina egitea eskatzen dugu, bertan neurri berean nekazaritza-ustiategi profesionalen titular izan gabe nekazaritza-munduan sartzen diren eta sektore horretan jarraitzen duten gazteen alde arautuz.

- **Ordezkapen-zerbitzua eta laneratze-enpresak.**

17.3 artikuluan aipatzen denez, "Euskal nekazaritza-administrazioek laneratze sozio-laboraleko enpresak sortzea bultzatuko dute, euskal nekazaritza-ustiategien ordezkapen-zerbitzuak betetzeko eskulana bideratzeko aukera emango dutenak".

Harrigarria da ordezkapen-zerbitzuak betetzeko laneratze-enpresetan pentsatu izana. Enpresa horien helburua lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea da.

Gogorarazi behar dugu laneratzeko enpresak<sup>1</sup> irabazi-asmorik gabeko ekimen ekonomikoak direla, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei laguntzea eta gizarteratzea eta laneratzea dute helburu. Helburua laneratze-enpresetatik igaro ondoren pertsonak merkatu arruntean sartzeko aukera izatea da. Ez luke zentzurik izango ordezkapenak betetzeko kontratazio instrumental hutsak, baldin eta gero pertsonak ez badira betiko ohiko merkatuan sartzen. Laneratze-enpresek sektoreko hitzarmena aplikatu behar dute, eta pertsonak laneratzeko prozesua osatu arte bakarrik egon daitezke. Ez da ikusten ondorengo aukerarik pertsona horientzat sektorean.

---

<sup>1</sup> Laneratzeko enpresatzat hartzeko beren enpresa-jarduera garatzeko indarrean dagoen araudia betetzeaz gain, produkzio-egitura horiek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Sozietatearen helburu nagusia lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea da.
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek edo batzuek sustatzen dituzte (zuzenbide publikokoak bane), bereziki behartsuak diren pertsonak gizarteratzea xede dutenak.
- Gutxienez plantillaren % 50 gizarteratze-prozesuan dauden pertsonak osatu behar dute.
- Laneratzen ari diren pertsonak gutxienez 6 hilabete eta gehienez 3 urte eman ditzakete Laneratze-Enpresan.
- Ekitaldi ekonomiko bakoitzean lortutako soberakin erabilgarriak produkzio- eta laneratze-egiturak hobetzeari edo handitzeari aplikatuko zaizkio, edo laneratze-enpresaren funts propioak handitzeari, eta ez da inola ere etekinen banaketarik egingo.

### **Funtsezkoak diren alderdien zehaztasunik eza eta ondorengo erregelamendu-garapenetara igortzea**

Dekretu-proiektuari dagokionez 8/2014 Dekreturako azaldu genuen iritzi bera dugu (4/13 Irizpena). Erregelamendu-mailako arau erregulatzaile baten aurrean gaude, eta, beraz, ez da onargarria arau horrek adierazpen zehaztugabeak izatea eta/edo ondorengo erregelamendu-garapenetara igortzea.

Kezkagarria iruditzen zaigu helburu nagusitzat lehentasunezko tratamendua arautzea duen erregelamendu-araua izanik (laguntza-plan eta plan sektorial propioak eskuratzeari dagokionez; NPBren laguntzak eskuratzeari dagokionez; nekazaritza-lurra eta ekoizpen-bitartekoak eskuratzeari dagokionez; titulartasuna eskuratzeari dagokionez; prestakuntza-ikastaro eta -programetara sartzeari dagokionez...) "lehentasuntzat" hartu behar dena behar bezala ez zehaztea.

Era berean, artikuluetan "etorkizuneko" esamoldeak dira nagusi (arautuko du/ditu, babestuko du/ditu, babestuko dira, bermatuko dituzte, laguntzak ezarriko dira, kontuan hartuko da, aholkatuko da, salbuespenak ezarriko dira eta abar), eta horien ondorioz arauaren funtsezkoena lausoegia da eta eskuetatik ihes egiten du.

## **IV.- GOGOETA BEREZIAK**

---

**8/2014 Dekretuaren testua berreskuratzea (6. Mendi publikoak eta herri-mendiak) eta paragrafo berri bat gehitzea.**

### **6. artikulua.– Mendi publikoak eta herri-mendiak.**

**1.– Beren ustiategia mendi publikoak banaka nahiz beste udalerrri batzuekin batera kudeatzen dituen euskal tokiko erakunde batean kokatua duten nekazari gazteek, eskabidea egin ahal izango dute gune horiek eskuratu eta erabiltzeko nekazaritza-jarduerarako, Nekazaritza Ustiategien Erregistroan alta ematen duten momentutik.**

**2.– Euskal administrazioak salbuespenak ezarriko dituzte nekazaritza profesionalaren sektorean instalatzen diren gazteentzat, ustiategiaren titulartasuna eskuratzen dutenetik lehengo aldiz instalatzeko epean. Salbuespen horiek, besteak beste, honako baldintza hauei aplikatuko dakizkieke:**

**a) Aprobetxamendu-kanonen ordainketa.**

**b) Dedikazio nagusia nekazaritza-jardueran emateko eskakizuna.**

**3.- "Mendi publiko eta herri-lur bakoitzean erreserba bat sortuko da, Agintaritza Kudeatzaileak zehaztu beharreko portzentaje batekin, GAZTENEK proiektua onartu zaien, onartu eta hurrengo bost urteetan, gazteen artean banatuko den hektarea-erreserba sortzeko.**

### **Besteren konturako langileen kontratazioari buruzko artikulua bat gehitzea**

Gogoeta orokorretan azaldutakoaren ildotik, estatutuak titulartasuna bultzatzea du ardatz, eta beste aukera batzuk ere kontuan hartu eta aurreikusi beharko lituzke; zehatzago esanda, besteren konturako nekazari gazteen aukera.

## V.- ONDORIOA

---

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz "*Nekazari gazteen Estatutua arautzen duen eta nekazari gazteen Estatutuari buruzko otsailaren 4ko 8/2014 Dekretua indargabetzen duen dekretuaren proiektuaren*" izapidetzea egokia da, kontsulta-organo honek hori aldatzeko egin dituen gogoetekin.

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria